

Egun on, lankide,

Pasa den asteartean enpresarekin eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariarekin Mahai Negoziatzailea burutu genuen Lakuan. Bertan, gai hauek jorratu genituen:

1. KUDEAKETA LANGILEEI DAGOKIENEAN:

- . Kudeaketa langileen ordezkapenak.
- . Kudeaketa langileen barne-sustapen araudia.
- . Kudeaketa langileen ordezkoen araudia.

Haurreskolak Partzuergoko Kudeaketa langileak abendu hasieran mobilizazioak burutzen hasi ziren, lan baldintza duinak lortzeko asmoarekin. Mobilizazio hauei esker, enpresak eta Eusko Jaurlaritzak aurrera pausu batzuk eman dituzte. Bide egokian gaude, baina oraindik EPE prozesuan eta langileen ekiparazio prozesuan gaiak adostu gabe daude. Lanean jarraitu behar dugu, beraz. Negoziaketa hauen nondik norakoak jarraitu ahal izateko, esteka honetan duzue informazio osagarria:

<https://steilas.eus/2019/04/11/haurreskolak-partzuergoa-steilasberri-11-mahai-negoziatzailea/>

2. HEZITZAILEEI DAGOKIGUNEAN:

. **Txanda egunak:** Enpresa, aurren ere bere kabuz kudeatzen ari da gai hau. Datorren urteari begira oraindik ez gara txanda egunak eskatzeko prozeduran adostasunetara heldu. Ordezkoen txanda egunak kudeatzeko modua ere zehazteke dago, izan ere, kasuistika desberdin asko eman daiteke kolektibo honetan eta guztia ondo lotu beharko da etorkizunean arazorik ez izateko.

3. LANGILE GUZTIEI DAGOKIGUNEAN:

. **Borondatezko Eszedentziak:** enpresak Eusko Jaurlaritzari txosten juridiko bat eskatu dio, eta oraindik ez du erantzunik jaso. Beraz, gai honetan garapenik ez dagoen bitartean, Enpresak langile askoren eskubideak ukatu egiten ditu. **STEILAS**en, egoera honen aurrean, langileen eskubideen garapenean urratsak emateko unea dela uste du, azken urteetako **eskubide urraketa** gainditzeko.

. **Soldata eguneraketa:** martxoko nominarekin batera, soldata igoera aplikatu digute (%2,25a), eta urtarrila eta otsaileko atzerapenak ordaindu dizkigute. Bajan zaudetenok, **Gizarte Segurantzari edota Mutualiari erreklamatu** behar diozue soldata igoera hau.

. **Aitatasuna:** enpresak oraindik Eusko Jaurlaritzaren eskutik ez duela agindurik jaso esan zigun. Ondorioz, momentuz, BOEko irizpideak baino ez dizkigu aplikatuko: haurra jaiotzen den momentuan 2 aste hartu beharko dira derrigorrez, eta beste 6 asteak haurrak 12 hilabete bete aurretik. 6 aste horiek jarraian edo zatika hartu ahal izango dira: zatika hartu nahi badira, aste osoak izan beharko dira.

. **Errelebo kontratua:** enpresak jakinarazi zigun errelebu kontratua **finkoek** eta **historikak** disfrutatu ahal izango dutela soilik. Onartezina da Haurreskolak Partzuergoak behin-behineko tasa hain handia izanda, %40koa, sindikatu batzuek Mahai Orokorrean onartutako neurriak guri gordinean aplikatzea, zahar-berritze plan propioa negoziatzeko aukera ukatuz.

STEILASen langileen eta beraien aldarrikapenen alde lanean tinko jarraituko dugu!



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus